# PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS PARA EL SUMINISTRO DE GASÓLEO DE CALEFACCIÓN A TRAVÉS DE LA CENTRAL DE CONTRATACIÓN FORAL DE GIPUZKOA (EXPTE: X22019)

## 1. OBJETO DEL ACUERDO MARCO

El objeto del Acuerdo marco será el suministro de gasóleo de calefacción C para los centros de las entidades adheridas a este expediente de contratación a través de la Central de Contratación Foral de Gipuzkoa que se relacionan en el Anexo X del PCAP.

## 2. ALCANCE DEL ACUERDO MARCO

En el Estudio económico se relacionan la cantidad de puntos de suministro y los consumos anuales estimados que se incluyen en el contrato. Las cantidades que se indican deben entenderse como orientativas, por lo que no supondrán compromiso de consumo, sino que éste dependerá de las necesidades existentes. En cualquier caso y a efectos de orientación a los licitadores, se estima que el suministro anual será del orden de 896.150 litros.

Dada la variabilidad del precio de los combustibles, en estos pliegos se establece la fórmula que se aplicará para calcular semanalmente el precio de litro de gasóleo C. El precio ofertado se calculará en base a dicha fórmula; sin embargo, a efectos de facturación el precio final se obtendrá por aplicación de las bonificaciones que reglamentariamente se establezcan, en su caso.

En el Acuerdo marco se prevé una desviación del consumo de hasta un 10% con respecto al presupuesto previsto y su valor se incluye en el valor estimado del acuerdo marco.

La Empresa adjudicataria deberá tener completo conocimiento de la ubicación de las instalaciones implicadas y de las condiciones particulares de acceso ligadas a la seguridad y a la especificidad de los edificios, servicios e instalaciones.

## 3. CARACTERÍSTICAS TÉCNICAS DEL GASÓLEO

El combustible cumplirá la normativa vigente y en concreto la relativa a características y calidad establecida en el Real Decreto 1088/2010, por el que se determinan las especificaciones de gasolinas, gasóleos, fuelóleos y gases licuados del petróleo y se regula el uso de determinados biocarburantes y en el Real Decreto 1085/2015, de 4 de diciembre.

La empresa licitadora deberá indicar en su oferta las características técnicas y de calidad del gasóleo ofertado, concretamente la composición, propiedades físicas y químicas (al menos el contenido en azufre y el POFF, punto de obstrucción filtro frío), el poder calorífico, la terminal de origen y el impacto medioambiental de la combustión.

## 4. SUMINISTRO

Las entregas de gasóleo serán realizadas por la empresa adjudicataria mediante camiones cisterna en los depósitos de cada centro.

El plazo de entrega será como máximo de 48 horas (sin contar días festivos).

Todos los camiones cisterna que realicen los suministros deberán llevar contador volumétrico para la descarga.

La empresa suministradora deberá aportar en cada entrega la documentación acreditativa de la medición de la cantidad descargada. En dicha documentación deberá indicarse al menos el centro en que se entrega, fecha y número de litros, así como la firma de la persona que recibe el suministro en nombre de la entidad.

Los contadores volumétricos deberán estar calibrados / verificados de acuerdo a la Orden del 29 de febrero de 2008 de la Consejería de Industria del Gobierno Vasco, al Real Decreto 889/2006 y la Orden ITC/3750/2006 de 22 de noviembre de 2006 del Ministerio de Industria (BOE 294 de 09/12/2006) al menos una vez al año. Será requisito para la admisión de la oferta la presentación de copia del certificado de calibración de toda la flota de camiones. Dichos certificados tendrán una antigüedad inferior a un año.

## 5. FIJACION DEL PRECIO

En el apartado 4 del cuadro de características del PCAP se establece la fórmula para la determinación del precio del gasóleo a lo largo de la duración del contrato.

El lunes de cada semana se comunicará por correo electrónico a la Diputación el precio actualizado y su cálculo. Se acompañará a este cálculo documentos acreditativos de los valores CI (cotización Platt) y C (cambio €/$). El resto de los parámetros que intervienen en la fórmula se mantendrán invariables, salvo que se produzca un cambio en los impuestos aplicados.

**El precio a facturar para cada pedido será el correspondiente al día del pedido, aunque sea diferente al precio del día de entrega**.

## 6. ATENCIÓN AL CLIENTE

La empresa suministradora deberá designar una persona gestora personal del contrato, que representará a la empresa en cuanto a que será la única persona de contacto con la Diputación Foral, los Entes Públicos y los Ayuntamientos adheridos al Acuerdo marco, y cumplirán al menos con las siguientes funciones:

- Tramitar las altas de nuevos contratos.
- Servir de consejero/a en las posibles consultas,
- Recibir y actuar sobre las posibles incidencias.
- Gestionar la facturación.

San Sebastián, 15 de octubre de 2022
LA JEFA DE SERVICIOS GENERALES

Fdo.: Marta Blanco Suárez

# BEROGAILURAKO C GASOLIOA GIPUZKOAKO FORU KONTRATAZIO ZENTRALAREN BITARTEZ HORNITZEKO EZAUGARRI TEKNIKOEN AGIRIA (X2019)

## 1. ESPARRU AKORDIOAREN HELBURUA

Esparru akordioaren helburua izango da, kontratazio-espediente honi atxikiak dauden erakundeen egoitzak C gasolioa hornitzea Gipuzkoako Foru Kontratazio Zentralaren bitartez. AKPPren X eranskinean ageri da aipatutako erakundeen zerrenda.

## 2. ESPARRU AKORDIOAREN HELMENA

Hornidura puntuen kopurua Azterketa ekonomikoan ageri dira, zenbatetsi diren urteko kontsumoak bezalaxe. Horiek jasoko dira kontratuan. Dena den, kopuru horiek orientazio gisa hartu behar dira; hau da, ez dute kontsumo-konpromisorik ekarriko, unean uneko premien arabera kontsumituko baita. Edonola ere, eta lizitatzaileak orientatzearren, urteko gasolio-hornidura, gutxi gorabehera 896.150 litrokoa izango da.

Erregaien prezioaren aldakortasuna ikusita, agiri hauetan ezartzen da C gasolioaren litroaren prezioa astero kalkulatzeko erabiliko den formula. Eskainitako prezioa formula horren arabera kalkulatuko da; hala ere, fakturazioari dagokionez, azken prezioa erregelamendu bidez ezartzen diren hobariak aplikatuta lortuko da, hala badagokio.

Esparru-akordioan kontsumoa aurreikusitako aurrekontuarekiko % 10 desbideratzea aurreikusten da, eta haren balioa esparru-akordioaren balio zenbatetsiaren barruan sartzen da.

Enpresa esleipendunak zehatz-mehatz ezagutu behar du kontratuan jasotako instalazioen kokalekua eta eraikin, zerbitzu eta instalazioen segurtasunarekin eta berezitasunarekin lotutako sarbide-baldintza berezi guztiak.

## 3. GASOLIOAREN EZAUGARRI TEKNIKOAK

Erregaiak indarrean dagoen araudia beteko du, bereziki kalitateari eta ezaugarriei dagokiena, eta zehazki 1088/2010 Errege Dekretua, gasolina, gasolio, fuel-olio eta petroliotik likidotutako gasen espezifikazioak xedatzen dituena eta zenbait bioerregaien erabilera arautzen duena, eta 1085/2015 Errege Dekretua, abenduaren 4koa.

Lizitatzaileak, eskainitako gasolioaren ezaugarri teknikoak eta kalitateari buruzkoak adierazi beharko ditu, zehazki konposizioa, propietate fisikoak eta kimikoak (gutxienez sufre maila eta POFF, hotz iragazkiaren butxadura puntua, bero ahalmena, jatorrizko terminala eta errekuntzaren ingurumen eragina.

## 4. HORNIKETA

Esleipendunak zisterna kamioietan eramango du gasolioa zentro bakoitzeko biltegietara.

Gasolioa hornitzeko epea gehienez 48 ordukoa izango da (jaiegunak kontatu gabe).

Hornidurak egingo dituzten zisterna kamioiek zamalanetarako kontagailu bolumetrikoa eraman beharko dute.

Hornitzaileak, entrega bakoitzean, deskargatu duen kopuruaren neurketa egiaztatzeko dokumentazioa aurkeztu beharko du. Dokumentazio horretan, gutxienez, honakoa agertu behar da: entregatzeko zentroa, data eta litro kopurua, eta baita erakundearen izenean horniketa sinatzen duen pertsonaren sinadura ere.

Kontagailu bolumetrikoek gutxienez urtean behin kalibratuta edo egiaztatuta egon behar dute, Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2008ko otsailaren 29ko Aginduaren arabera, 889/2006ko Errege Dekretuaren arabera eta Industria Ministerioaren 2006ko azaroaren 22ko ITC/3750/2006 aginduaren arabera (EAO, 294. zk., 06/12/09). Eskaintza onartzeko baldintza izango da kamioi guztien kalibrazio ziurtagirien kopia aurkeztea. Aurkeztu beharreko ziurtagiriek urtebete baino gutxiagoko antzinatasuna izan behar dute.

## 5. PREZIOA JARTZEA

Baldintza administratibo berezien agiriko ezaugarrien taulako 4 atalean, gasolioaren prezioa zehazteko formula ezartzen da, kontratua indarrean dagoen bitartean.

Astelehenero, posta elektronikoz jakinaraziko zaio Aldundiari prezio eguneratua eta haren kalkulua. Kalkulu horrekin batera aurkeztuko dira NK eta T balioak egiaztatzen dituzten dokumentuak. Formulan parte hartzen duten gainerako parametroak ez dira aldatuko, non eta aldaketarik ez den gertatzen aplikatutako zergetan.

Eskaera bakoitzerako fakturatuko den prezioa eskaera egiten den egunari dagokiona izango da, entrega eguneko prezioa beste bat izan arren.

## 6. BEZEROENTZAKO ARRETA

Enpresa hornitzaileak kontratuaren kudeatzaile pertsonal bat izendatu beharko du. Pertsona hori izango da Foru Aldundiarekin, erakunde publikoekin eta esparru-akordioari atxikitako udalekin harremanetan egongo den pertsona bakarra, eta gutxienez honako eginkizun hauek beteko ditu:

- Kontratu berrien altak izapidetzea.
- Balizko kontsultetan aholkulari izatea.
- Gerta daitezkeen gorabeherak jasotzea eta horien gainean jardutea.
- Fakturazioa kudeatzea

Donostia, 2022ko azaroaren 16a
ZERBITZU OROKORRETAKO ZERBITZUBURUA

Sin.: Marta Blanco Suárez